



23-24 DENBORALDIRAKO GAZTE ABONOA ESKURATZEKO OINARRI OROKORRAK

Izena emateko epea: osteguna, uztailaren 13a, 2023ko uztailaren 24ko (astelehena) 12:00ak arte.

Inskripzio-arauak: banaka edo gehienez ere 4 pertsonako taldeak.

Zozketa: 2023ko uztailaren 24a, astelehena (izena emandakoek plaza eskuragarrien kopurua gainditzen badute)

Zozketarako lehentasun-irizpidea: zozketa honetarako lehentasuna izango dute [Club Athleticeko](#) kide diren edo izen-ematea itxi aurretik kide egiten diren gazteek.

Adina: 14 eta 26 urte bitartean (1997ko maiatzaren 20tik 2009ko abuztuaren 12ra bitartean jaiotakoak, biak barne).

Prezioa: 395 €

Kokapena: Ipar Beheko Harmaila (Herri harmaila)

Abonuan sartutako partidak:

- Gizonezkoen lehen taldea: LaLiga EA Sports 23-24ko etxeko partida guztiak.
- Emakumezkoen lehen taldea: F Ligako eta Kopako etxeko partida guztiak, Lezaman zein San Mamesen.
- Bilbao Athletic: ligako (2. Federazioa) etxeko partida guztiak, Lezaman.

Abonuan sartzen ez diren partidak:

Gizonezkoen lehen taldeak San Mamesen jokatzeko gainerako lehiaketetarako, Klubak salgai jarriko ditu Gazte Abonoaren 2.210 plazak. Sarrera horiek erosi ahal izango dituzte hasierako inskripzio prozesuan izena eman zuten gazte guztiak, faseetan, eskuragarritasunaren arabera eta lehentasun-ordena honi jarraituz:

1. Izena eman eta saririk jaso ez dutenak (Gazte Abonorik gabe), baldin eta Club Athleticeko kide badira.
2. Club Athleticeko kide diren Gazte Abonodunak
3. Club Athleticeko kide ez diren Gazte Abonodunak eta Club Athleticeko kideak

Kolektibo hauentzako sarreren prezioa 25 eurokoa izango da.



Abonuaren baldintzak:

Ligako partiden %80ra baino gutxiagora joateak hurrengo denboraldiko abonua eskuratzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

22-23 denboraldiko "BIKAIN" modalitateko 100 euro gehigarriak bazkide izateko sartzeko eskubideen deskontu gisa mantentzen dira, baldin eta Gazte Abonodunak etorkizunean Athletic Clubeko bazkide izatea erabakitzen badu.

Ezin izango dute Gazte Abonua kontratatu zehapen-espeditenteak dituzten edo betetzen ari diren pertsonak, ezta kanporatuak izan diren bazkide edo abonatuak ere.

San Mameserako sarbidea:

Gazte Abonua lortzen dutenek txartel digitala izango dute, Athletic Cluben app ofizialaren bitartez erabili beharko dutena (ezin izango dira abonopak utzi, ezta app ofizialaren bidez, pertsonalak eta besteraezinak baitira). Athletic Clubek abonatuaren kodigoa eta PIN zenbakia emango die abonua lortzen duten guztiei txartel digitala aktibatu eta San Mamesera sartu ahal izan daitezen.

Abonua lortzeko baldintzak eta aplikatu beharreko kontratu-araubidea:

- 1- Gazte Abonua eskuratzeko, interesdunek Athletic Clubi izena, abizenak, NAN zenbakia, jaioteguna, telefonoa, helbide elektronikoa.
- 2- Pertsona bakoitzeko izen emate bat bakarrik onartuko da. Bat baino gehiago egongo balitz, lehenengoari eutsiko zaio, berdin du besteren bat talde izen emate batekoa den edo ez.
- 3- Abonatu izaera eskuratzeko (Gazte Abonoa) oinarri hauek erabat eta erreserbarik gabe onartzen direla adierazten du.
- 4- Abonatuak (Gazte Abonoa) Athletic Clubarekin duten lotura kontratu-izaerakoa da, eta oinarri hauek arautzen dute. Gazte Abonoa, aldi berean, une bakoitzean aplikatzekoa den Kirol Esparruetako Abonatuen eta Sarbideen eta Egonaldien Erregelamenduari lotuta egongo da, eta araudi horrek oinarri hauetan ezarritako araubidea osatuko du.

Gazte Abonoa pertsonala eta besteraezina da, pertsona titularra hura ondo erabiltzeaz arduratu beharko da.

- 5- Hirugarren batek sarrera-dokumentua erabiltzeak honi sarrera debekatzea edo zelaitik kanporatzea dakar, bai eta haren titularrari.



- 6- Abonatuek (Gazte Abonoa) konpromisoa hartzen dute oinarri hauen 13. arauan eta Kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legearen 6. eta 7. artikuluetan ezarritako ikusleentzako sarbide- eta egonaldi-baldintzak betetzeko, eta konpromisoa hartzen dute lege horren 2.1 eta 2.2 artikuluetan aurreikusitako ekintza edo jokabiderik ez egiteko, bai eta kirol-esparruaren barne-araubideko arauak errespetatzeko ere.
- 7- Abonatuek (Gazte Abonoa) konpromisoa hartzen dute taldeari etengabeko babes iraunkorra emateko, betiere talde eta zalego aurkariari errespetuz dagokionez eta kirol-jokabide eredugarria izanik, eta ekintza edo kantu iraingarriak egiteari uko eginez.
- 8- Abonatuek (Gazte Abonoa) Klubeko segurtasun-langileek edo -zerbitzuek unean-unean adierazten dituzten jarraibideak betetzeko konpromisoa hartzen dute.
- 9- Abonatuek (Gazte Abonoa) onartzen dute une bakoitzean indarrean dauden nortasun egiaztapen-kontrol guztiak eta Klubari emandako datuak egiaztatzea.
- 10- Animazio-harmailan erakusten diren animazio-materialak, dagozkien legeko baldintzak betetzeaz gain, Klubak onartu beharko ditu alde aurretik. Horiek zale-talde, kolektibo edo peña bati buruzkoak direnean, talde hori behar bezala inskribatuta egon beharko da Klubaren jarraitzaileen jardueren erregistro-liburuan, eta haren erabileraren arduradun bat egon beharko da.
- 11- Abonatu (Gazte Abonoa) izateari uztea:
Abonatuaren izaera galdu egiten da:
 - a) Bere borondatez, baja Klubari idatziz jakinarazten bazaio. Jakinarazpen hori bitarteko elektronikoen bidez ere egin ahal izango da, alde aurretik ordaindutako zenbatekoei dagokienez Programaren Oinarrietan ezarritako ondorioekin.
 - b) Abonatu-kontratuaren iraupena amaitzeagatik, aplikatu beharreko programaren oinarrien arabera.
 - c) Abonatu-kontratua 3. artikuluan xedatutako moduan suntsiarazten denean.
 - d) Abonatuaren heriotza, baldintza pertsonal eta besterenezina bada.
 - e) Oinarri hauetan berriaz horretarako aurreikusitako beste edozein arrazoi.
- 12- Abonatu (Gazte Abonoa) kontratuta deusestatzea:
 - 1.- Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, bere betebeharrak bete dituen alderdiak eskubidea izango du betebeharra bete dadin eskatzeko edo abonamendu-kontratua suntsiaraz dadin sustatzeko, Kode Zibilaren 1124. artikuluan xedatutakoaren arabera.



2.- Funtsean, Athletic Clubek berariaz ahalmena izango du abonatuarekin duen abonatu-kontratua suntsiarazteko, besteak beste, honako kasu espezifiko hauetan:

- a) Abonatuak Klubaren instalazioetara sartzeko edo bertan egoteko baldintzetako edozein ez betetzea, onartzen den kirol-instalazioen barne-araubidea barne.
- b) Baimenik ez dagoenean, txartel digitala edo sarbide-agiria hirugarren batek erabiltzeko uztea.
- c) Administrazio- edo zigor-ebazpen bidez, indarkeriazko jokabideak, jokabide arrazistak, xenofoboak eta intoleranteak direla eta, edozein kirol-esparrutan sartzea debekatzea.
- d) Klubari datu okerrak ematea, abonatua izatea lortzeko.

3.- Abonatuaren kontratua suntsiarazten bada abonatutako pertsonari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, abonatuak automatikoki galduko ditu oinarri hauetan ezarritako eskubideak, eta ezin izango zaio itzuli Athletic Clubi ordaindutako dirua nahiz eta abonoak hartzen zuen epea martxan egon.

4.- Nolanahi ere, abonatu-kontratua suntsiaraztea bateragarria izango da Klubari edo hirugarrenei abonatutako pertsonak bere ekintzekin eragindako kalteak diruz itzultzeko edo kalteak ordaintzeko eskakizunarekin.

13- San Mamesera sartzeko baldintzak.

1. Debekatuta dago:

a) Edozein motatako armak edo horien ondorio berak eragin ahal dituzten gauzakiak sartzea, eramatea edo erabiltzea, baita bengalak, petardoak, lehergaiak eta, oro har, produktu sukoiak, ke-eragileak nahiz korrosiboak ere.

b) Indarkeriara bultzatzen duten mezudun pankartak, banderak, ikurrak edo beste seinale batzuk sartzea, erakustea nahiz prestatzea, edo baita ere haiek pertsona eta pertsona-talderen bat bere arraza-nahiz etnia-jatorriagatik, erlijioagatik zein iritziengatik edo bere minusbalotasunagatik, adinagatik edo sexu-joeragatik mehatxaturik, iraindurik edo laidoztaturik sentiarazten dutenean.

c) 2. artikulua lehengo eta bigarren ataletan indarkeriazkotzat, arrazistatzat, xenofobotzat edo intolerantetzat jotzen diren jokabideak izatea.

d) Kirol-esparrura edari alkoholduen, droga toxikoen, estupefazianteen edo sustantzia psikotropikoen eraginpean sartzea.

e) Kirol-esparrura sartzea horrexetarako balioko txartelik gabe.

f) Arautegian xedatzen den beste edozein portaera, beti ere horrek portaera



indarkeriazkoak, arrazistak, xenofoboak edo intoleranteak sustatzen lagundu badezake.

2. Kirol-lehiaketa eta -ikuskitzetako ikusleak eta bertaratuak hartarako ipinitako kontrolen pean jarri behar dira, aurreko atalean adierazitako baldintzak egiaztatzeko, eta bereziki:

a) Telebista-zirkuitu itxiz grabatuak izateko bai kirol-esparruaren inguruetan, bai haren sarbideetan eta bai barruan.

b) Aurreko ataleko a) eta b) puntuetan jasotako betebeharrak egiaztatzearen egiten diren miaketa pertsonalak onartzea.

3. Sartzea eragotziko zaio aurreko atalean adierazitako portaeretakoa bat duen edozein pertsonari, bere jarrera oneratzeko ez duen artean, edo kanporatua izateko zioen baten pean erori bada. Aurrekoari jarraiki, jakinarazten da ikusleei kirol-esparrura sartzea eragotzi dakiekeela, edari alkoholdunak, armak, hala balira lez erabili daitezkeen gauzakiak, eta bengalak zein antzekoak sartzeagatik, edo edari alkoholdunen, droga toxikoen, estupefazianteen edo sustantzia psikotropikoen eraginpean daudenei. Zehazki, kirolean indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantzia prebenitzeko Arautegia onesten duen otsailaren 26ko 203/2010 Errege Dekretuko 20.2. artikulua ezarritakoari jarraiki, sarrera-erosle eta -erabiltzaileari jakin eragiten zaio kirol esparrua bidez zaindutako eremu bat dela, norgehiagoka ikustera bertaratuen eta parte-hartzaileen segurtasunerako, betiere, eta kirol-esparrura sartzea eta han egotea debekatuko zaiela gutxienez, honako zio hauengatik:

a) Liskar, istilu, borroka nahiz desordena publikoetan parte hartzea.

b) Honako hauek sartzea, eramatea edo erabiltzea: armak, edozein motatakoak, nahiz haien ondorio berak eragin ahal dituzten gauzakiak, hala nola, ziztatzaileak, edo ebakitzzaileak jaurtigai gisa erabili ahal direnak, hala nola, ontzi zurrunetan sartutako janariak, edari botilaratuak edo potioetan daudela.

c) Bengalak, petardoak, lehergaiak edo, oro har, produktu sukoiak, ke-eragileak edo korrosiboak eta gailu piroteknikoak sartzea edo edukitzea.

d) Edari alkoholdunen, estupefazianteen, psikotropikoen estimulatzaileen edo antzeko sustantzien eraginpean egotea.

e) Edozein motatako edari alkoholdunak sartzea edo saltzea, bai halaber sustantzia estupefazianteak, psikotropikoak edo antzekoak.



f) Indarkeriara edo terrorismora bultzatzen duten mezudun pankartak, banderak, ikurrak edo beste seinale batzuk sartzea, erakustea nahiz prestatzea, bai halaber, aipatu mezuak direla-eta, pertsona eta pertsona-talderen bat bere arraza- nahiz etnia-jatorriagatik, erlijioagatik zein iritziengatik, bere minusbaliotasunagatik, adinagatik sexuagatik edo sexu-joeragatik mehatxaturik, iraindurik edo laidoztaturik sentiarazten dituztenak.

g) Indarkeriara edo terrorismora bultzatzen duten abestiak, adierazpenak nahiz soinuak ematea edo haietarako jarrerak izatea, edo pertsona nahiz pertsona zein talderen bat bere arraza zein etniagatik, minusbaliotasunagatik, erlijioagatik, iritziengatik, sexuagatik edo sexu-joeragatik, laidoztatu asmo dutenak.

h) Jokalekuan sartzea.

i) Edozein kirol-esparrutara sartzeko debekuarekin zehatua izana, zehapena bera iraugitzen ez den bitartean.

Eta ildo berean, kirol-esparruan egoteko baldintzak, lehen aipatutako 19/2007

Legean ezarritakoak izango dira, eta bereziki: 7. artikulua. Kirol-esparruan egoteko baldintzak.

1. Kirol-norgehiagoketan Ikusleak kirol-esparruan egon ahal izateko baldintzak dira indarkeriazko ekintzak ez egitea, ez arrazistak, ez xenofoboak, ez intoleranteak, ez haietara bultzatzen dutenak, Lege honexetako lehenengo eta bigarren ataletan definitutakoaren arabera; bereziki:

a) Inor ez jotzea, ez ordena publikoa asaldatzea..

b) Ez ematea abesti, soinu edo kontsigna arrazistak edo xenofoboak, ez intolerantziak, ez indarkeriara edo terrorismora bultzatzen dutenak, ez Konstituzioaren beste edozein urraketa dakartenak.

c) Indarkeriara edo terrorismora bultzatzen duten pankartak, banderak, ikurrak edo beste seinale batzuk ez erakustea, ezta ere mezu arrazista, xenofobo edo intoleranteak dituztenak.

d) Ezelako gauzakirik ez botatzea.

e) Jokalekuan baimen barik ez sartzea.

f) Kirol-ikuskizunak egiten edo garatzen ari diren instalazioetan edo esparruetan ezelako armarik edo ondorio berak eragin ahal dituen gauzakirik ez edukitzea, ez aktibatzea edo ez jaurtitzea, ezta bengalarik, petardorik, lehegairik ez, oro har, produktu sukoiarik, ke-sortzailerik ez korrosiborik ere.

g) Bere garaian aurreikusitako segurtasun-baldintzak eta arautegiaz xedatzen direnak betetzea.



2. Era berean, hurrengo hauek dira, ikusleak kirol-esparruan egon ahal izateko baldintzak:

a) Ez hartzea alkoholdun edaririk, droga toxikorik, estupefazienterik, ez sustantzia psikotropikorik.

b) Norberak kirol-esparruan sartzeko duen txartelari dagozkion jarleku mota eta jesarlekua hartzea, baita ere txartel hori erakustea segurtasun-gorputz eta -indarrek eta antolatzailearen edozein enplegatuk edo laguntzailek eskatutakoan.

c) Kirol-esparruko araudiak eta/edo barne-araubidea betetzea.

3. Aurreko ataletan adierazitako betebeharrak ez betetzeak segurtasun-indarrek kirol-esparrutik kanporatzea ekarriko du, ondoren kasu batzuetan ezarri dakizkiokeen zehapenen kalterik gabe.

4. Kirol-lehiaketa eta –ikuskitzetako ikusle bertaratuek bakean utzi beharko dute kirol-esparrua eta horren inguruetatik ere alde egin, hala eskatu zaienean segurtasun-zioengatik zein lehenengo atalean aipatzen diren egoteko baldintzak ez betetzeagatik.

Estadioa bertan behera utziz gero, ezin izango da berriro sartu txartela berriro aurkeztu arren.

Klubak partiduaren irudi eta jabetza intelektualaren eskubide guztiak gordetzen ditu. Estadiora joaten diren pertsonak baimena ematen dute publikoaren parte gisa grabatzeko, euren irudia doan eta ondorio guztietarako emanez Athletic Club-i.

Erabat debekatuta dago Klubaren berariazko baimenik gabe partidua argazki, filmatu edo grabatzea eta laser erakusleekin edo antzekoekin sarbidea, baita animalien sarrera ere, Klubak baimendutakoak izan ezik (Itsu-txakurrak).